




EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica



HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA: EUSKARA

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

Item liberatuak 2010



ISEI • IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

ENTZUMENA - LH 4. maila

Eguraldia testua irratitik hartutakoa zen. Eguraldiari buruzko informazioa da eta edukia nahiko ezaguna.

Ikasleek bi aldiz entzuten zuten testua eta aldi berean, galderei erantzuten zieten. Hitzunek nahiko azkar hitz egiten zuten.

TESTUAREN TRANSKRIPZIOA:

Kazetaria: ... jakin dezagun zer eguraldi izango dugun ondorengo orduetan, batez ere bihar. Euskalmet zerbitzuen informazioa.

Neska: Leku gehienetan berdintsu mantenduko da giroa, zerua nahiko garbi eta tenperatura oso epel; baina barnealdeko mendietan, Pirinioetan eta ipar Euskal Herriko hainbat lekutan, ekaitzak jo dezake ondorengo orduetan. Eta bihar ere ekaitz arriskua egongo da baina eguneko ordurik gehienetan eguzkia eta beroa izango ditugu lagun, tarteka bai goi hodeiak ikusiko ditugu, baina ez dute eguzkia guztiz estaliko eta hego haizeak tenperatura altuak ekarriko dizkigu. Bihar hogeita zazpi (27) hogeita zortzi (28) gradura ailegatuko dira termometroak Euskal Herriko leku askotan bai barnealdean bai kostaldean ere. Baina bero honen eraginez, gero arratsaldean zehar trumoi hodeiak sortuko dira eta iluntze aldera ekaitza bota dezake baina arriskurik handiena bihar Pirinioetan izango dugu; beraz, oro har, giro eguzkitsua nagusituko da eta, esan bezala, beroa izango dugu biharkoan ere.

Mutila: Euskalmetek eguraldia eskaini dizu, informazio gehiago nahi baduzu, begiratu Euskalmet.net.

TESTUAREN DESKRIPZIOA:

- **TESTUAREN ERABILAREN ESPARRUA:** Komunikabideak.
- **TESTUAREN GENEROA:** Azalpenezkoa.
- **SORBURUA:** Euskadi irratia.
- **IZENBURUA:** Eguraldia.



Audioa entzun ondoren, 01-05 bitarteko galderari erantzun

EGURALDIA



01

Nork eman du informazioa?

- A. Kazetari batek.
- B. Euskadi irratiak.
- C. Irratiko albistegiak.
- D. Euskalmet zerbitzuak.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

DIMENTSIOA: Entzumena.

AZPI-KONPETENTZIA: Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen **helburua antzematea**.

ITEMAREN HELBURUA: Testuaren igorlea antzematen du.

ERANTZUN ZUZENA: D. Euskalmet zerbitzuak.

KONPETENTZIA-MAILA: ERDI-MAILA.

02

Pirinioetan ekaitz arriskua dago baina beste leku batean ere bai. Non?

- A. Nafarroan.
- B. Hegoaldean.
- C. Ipar Euskal Herrian.
- D. Oro har, Euskal Herri osoan.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

DIMENTSIOA: Entzumena.

AZPI-KONPETENTZIA: Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuetan (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) proposatutako helburuei erantzuteko **garrantziko informazioa hautatzea**.

ITEMAREN HELBURUA: Eskatutako berariazko informazio gehienak aurkitzen ditu.

ERANTZUN ZUZENA: C. Ipar Euskal Herrian.

KONPETENTZIA-MAILA: ERDI-MAILA.

03

Zein da testuaren ideia nagusia?

- A. Oro har, euria egingo du; Pirinioetan, aldiz, eguzkitsua.
- B. Eguraldia oso eguzkitsua izango da, eta zerua guztiz urdina.
- C. Giro beroa egingo duela eta gauean ekaitz arriskua izango dela.
- D. Eguraldi nahasia egingo duela: ekaitza eta euria, hain zuzen ere.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

DIMENTSIOA: Entzumena.

AZPI-KONPETENTZIA: Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen **zentzu orokorra identifikatzea**.

ITEMAREN HELBURUA: Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak antzematen ditu.

ERANTZUN ZUZENA: C. Giro beroa egingo duela eta gauean ekaitz arriskua izango dela.

KONPETENTZIA-MAILA: MAILA AURRERATUA.

04

Informazio zehatzagoa nahi baduzu, nora jo dezakezu?

- A. Ez dute esaten.
- B. Interneteko gune batera.
- C. Eguraldiari buruzko saioretara.
- D. Euskalmet izeneko egunkarira.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

DIMENTSIOA: Entzumena.

AZPI-KONPETENTZIA: Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen **edukia interpretatzea**.

ITEMAREN HELBURUA: Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.

ERANTZUN ZUZENA: B. Interneteko gune batera.

KONPETENTZIA-MAILA: MAILA AURRERATUA.

05

Zeri buruz hitz egiten da entzun duzun testuan?

- A. Ekaitz arriskuari buruz.
- B. Udako tenperaturei buruz.
- C. Pirinioetan egingo duen eguraldiari buruz.
- D. Euskal Herrian egingo duen eguraldiari buruz.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

DIMENTSIOA: Entzumena.

AZPI-KONPETENTZIA: Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) **zentzu orokorra identifikatzea.**

ITEMAREN HELBURUA: Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du.

ERANTZUN ZUZENA: D. Euskal Herrian egingo duen eguraldiari buruz.

KONPETENTZIA-MAILA: MAILA AURRERATUA.

IRAKURMENA - LH 4. maila

TESTUAREN DESKRIPZIOA:

- **TESTUAREN ERABILAREN ESPARRUA:** Komunikabideak.
- **TESTUAREN GENEROA:** Albistea.
- **SORBURUA:** Mendinet aldizkari digitala (egokituta).
- **IZENBURUA:** Elurra.



Datorren testua irakurri eta erantzun 01-04 bitarteko galderari.

ELURRA

Mendillorri auzoa txuri-txuri geratu zen, urtarrilaren 24an, asteazkena, elurra bota zuen eta. Mendillorri txuri-txuri geratu zen. Elurra espaloietan eta errepideetan. Autoek eta autobusek arazoak izan zituzten gure auzotik bai sartzeko, bai ateratzeko.

Mendigoiti ikastetxeko ikasleak, aldiz, beraien zamarrak, botak, txanoak eta eskularruak jantzita, ttipi-ttapa eskolara arazorik gabe ailegatu ziren.



Patioan, elurrak 10 cm-ko altuera lortu zuen. Hori ikusita, 3 urteko ikasle eta irakasleak patiora jolastera atera ziren eta elurrezko panpina polit bat egin zuten (argazkiak zintzilikatuak daude gure web gunean).

Jolas garaian 5. eta 6. mailakoak patiora atera ziren. 5 urtekoak ere atera ziren; Euskal Telebistako kamerak beraiek grabatzera etorri ziren.

Baina ez zen dena poza izan. Elurra errepidean zela-eta autobusak ikasleen bila ez ziren etorri eta bi ateraldi bertan behera geratu ziren. 3. mailakoak PLANETARIUMera joan gabe geratu ziren eta 4 urtekoak KILI-KILlra. Hala ere, esan beharra dago, dagoeneko talde hauen tutoreak telefonoz deika ari direla ateraldi hauetarako data berri batzuk lortzearren.

Mendinet Aldizkari digitala (egokituta)

01

Zein testu mota da hau?

- A. Albistea.
- B. Biografia.
- C. Iragarkia.
- D. Elkarriketa.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

DIMENTSIOA: Irakurmena.

AZPI-KONPETENTZIA: Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) **helburua antzematea.**

ITEMAREN HELBURUA: Testuaren generoa identifikatzen du.

ERANTZUN ZUZENA: A. Albistea.

KONPETENTZIA-MAILA: HASIERAKO MAILA.

02

Heldu ziren neska-mutilak Mendigoiti eskolara?

- A. Bai, oinez.
- B. Ez, Planetariuma joan ziren.
- C. Ez, denak etorri ziren autobusez.
- D. Bai, espaloietan ez zegoen elurrik.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

DIMENTSIOA: Irakurmena.

AZPI-KONPETENTZIA: Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) proposatutako helburuei erantzuteko **garrantzizko informazioa hautatzea**.

ITEMAREN HELBURUA: Testuaren garrantzizko informazioa bereizten du.

ERANTZUN ZUZENA: A. Bai, oinez.

KONPETENTZIA-MAILA: HASIERAKO MAILA.

03

Zeintzuk izan ziren ateraldirik gabe geratu ziren ikasleak?

- A. Hiru urtekoak.
- B. 3. eta 4. mailakoak.
- C. ETBra joan behar zirenak.
- D. Lau urtekoak eta 3. mailakoak.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

DIMENTSIOA: Irakurmena.

AZPI-KONPETENTZIA: Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) **edukia interpretatzea.**

ITEMAREN HELBURUA: Testuaren osagai inplizitu gehienak berreraikitzen ditu.

ERANTZUN ZUZENA: D. Lau urtekoak eta 3. mailakoak.

KONPETENTZIA-MAILA: ERDI-MAILA.

04

Zer kontatzen da testuan?

- A. Neguan elurra egin zuela.
- B. Eskola itxi zutela elurra egin zuelako.
- C. Elurraren ondorioz, zer gertatu zen eskolan.
- D. Elurra zela eta, autoak eta autobusak ez zirela eskolara iritsi.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

DIMENTSIOA: Irakurmena.

AZPI-KONPETENTZIA: Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) **zentzu orokorra** identifikatzea.

ITEMAREN HELBURUA: Testuaren informazio-edukiari buruzko laburpen ordenatua egiten du.

ERANTZUN ZUZENA: C. Elurraren ondorioz, zer gertatu zen eskolan mailakoak.

KONPETENTZIA-MAILA: ERDI-MAILA.

IDAZMENA - LH 4. maila



NARRAZIO BAT IDATZI

Txikitan gauza harrigarriak gertatzen zaizkigu. Idatzi narrazio bat txikitako gertakizunen bat kontatzen: parkean izandako istripuren bat, eskolan andereñoekin edo ikaskideekin gertatu zitzaizun zerbait, familian jazotako anekdotaren bat...



- Pentsatu ondo zer kontatu nahi duzun.
- Informazioa modu kronologikoan ordenatu.
- Gutxienez, **60 hitz** idatzi.



IDATZI BAINO LEHENAGO: pentsatu zertaz idatziko duzun eta zure ideiak antolatu.



IDAZTEN ARI ZARENEAN, testuaren itxura, gramatika eta ortografia zaindu.



BUKATZEAN testua birpasatu.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

<p>1. GAITASUN SOZIOLOGIKOA:</p> <p>Egokitasuna</p>	<p>Diskurtsoa komunikazio-egoerara moldatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> ◆ Testua testuinguruari dagozkion erregistroan eta trataeran idatzita dago (formala, informala). ◆ Testuaren helburua betetzen da. ◆ Pertsona narratzailea atxiki egiten da testuan zehar (testua singularreko 1. pertsonan idatzita badago, honela segitu behar du, ulermen arazoak eragiten dituzten aldaketak egin gabe).
<p>2. GAITASUN DISKURTSIBOA</p> <p>Koherentzia eta kohesioa</p>	<p>Testuaren edukiaren ebaluazioa: bertan ageri diren ideiak, haien antolamendua eta haien arteko lotura.</p> <ul style="list-style-type: none"> ◆ Eskatutako informazioa ageri da (testua galderan eskatzen den gaiari buruzkoa da). ◆ Informazioaren progresioa: <ul style="list-style-type: none"> • Ideiak eta datuak, oro har, modu logikoan antolatuta daude. • Informazio garrantzitsua eta berria aurkezten da; ez dago errepikapen gehiegirik ezta koherentziarik gabeko daturik ere. ◆ Testu mota bakoitzaren elementu bereizgarriak ageri dira (narrazioa denez: denbora, lekua, narratzailea, aditz denborak...) eta bere egitura errespetatzen da (aurkezpena-garapena-amaiera). ◆ Testuaren osagarriak (hitzak, perpausak, paragrafoak) baliabide egokiekin lotuta daude. <ul style="list-style-type: none"> • Lokailuak ez dira asko errepikatzen.
<p>3. HIZKUNTZA GAITASUNA</p> <p>Hiztegia, gramatika, sintaxia eta ortografia</p>	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Hiztegi egokia eta zuzena proposatutako gaiarekiko. ◆ Errepikapenak eta termino desegokiak (kolokialismoak, arrunckeriak) ez dira ugariak. ◆ Erabilitako perpaus motak eta haien konplexutasuna. ◆ Gramatika elementuen erabilera zuzena (adibidez, komunztadura, esaldiaren elementuen ordena eta abar). ◆ Ortografia akatsak.

ADIBIDEAK ZAILTASUN MAILAREN ARABERA

HASIERAKO MAILA

Maila honetan dauden ikasleen idazteko gaitasuna eskasa da; ideiak ez dituzte ondo garatzen eta ez dituzte egoki erabiltzen errekurto linguistikoak. Hiztegi ezagupenak, ezagupen gramatikalak eta ortografikoak urriak dira.


Datozen bi testuk ez dute proposatutako lana bete edo ez dute eskatutakoa ulertu (txikitako gertakizun bat aukeratzea eta garatzea). Agertzen den informazioa nahasia da, edukia ez dago antolaturik eta narrazioaren egitura egokia ez daukate (lehenengoak zerrenda ematen du eta bigarrenak biografia). Akats lexikoek, gramatikalek eta ortografikoek testuen ulergarritasuna eragozten dute.


4E2E200615603


03

14 **NARRAZIO BAT IDATZI** L4EE0098

- Pentsatu ondo zer kontatu nahi duzun.
- Informazioa modu kronologikoan ordenatu
- Gutxienez, **60 hitz** idatzi

 **IDATZI BAINO LEHENAGO**, pentsatu zertaz idatziko duzun eta zure ideiak antolatu

 **IDAZTEN ARI ZARENEAN**, testuaren itxura, gramatika eta ortografia zaindu

 **BUKATZEAN** testua birpasatu

Ni txikiro nintzenean, egun batean estcheretik jantzi gintzen. Gero nire kuman burua trabatu zidhen, gero ure bat burutik zegoela niri ja zidan. Gero zarpitartekin estolatzen ure handi bat salto egin zuen eta nire gainean jauzi egin zuen, gero nire korporara inflamatu egin zen. Gero arnaitik keztzean nire mihia apertzen ipini zidaten. Gero zigarria mailatzen ure bat putada bat eman zidan. Fin.

61

4E2E201389603



03

14

NARRAZIO BAT IDATZI

L4EE0098

- Pentsatu ondo zer kontatu nahi duzun
- Informazioa modu kronologikoan ordenatu
- Gutxienez, **60 hitz** idatzi

IDATZI BAINO LEHENAGO: pentsatu zertaz idatziko duzun eta zure ideiak antolatu

IDAZTEN ARI ZARENEAN, testuaren itxura, gramatika eta ortografia zaindu

BUKATZEAN testua birpasatu

Ni txikitzen lo asko egiten nuen hamabi ordu gutxi-gora behersa, oro negartia nintzen. Txikitzen orotxukua nintzen eta gurasoekin jolasten nintzen, andereñekin oro behersa nintzen. Txikitapela eta jolastea gutxi nintzen. Nire behengusua betri jolasten arda zen nirekin, animalia gutxi nintzen behsia adbidex.

46



ISEI IVEI
IRAKAS SISTEMA ERAGILATU
ETA IRAKASLEEN TRAZAMENDU
SISTEMEN BERRIKERAK
EUSKALERRIAN

EUSKO JAURLANITZA GOBIERNO VASCO
NEKAZALAN ETXERAKO ETXERAKO
ETA BERRIKERAK

ERDI-MAILA

Maila honetan dauden ikasleek duten idazte maila egokia da, ideiak ongi garatzen dituzte, baita errekurtsio linguistikoak ere. Hiztegi ezagupenak, ezagupen gramatikalak eta ortografikoen maila onargarria da.

Ondorengo adibideetan ikusten denez, ikasleak gai dira testuak era egoki samarrean idazteko. Ideiak garatuta daude eta nahikoa egituraturuta. Bestalde, akats gramatikal zein ortografiko batzuk agertzen dira, ulergarritasuna eragozten ez dituztenak betiere.

4E2E200829003



03

14

NARRAZIO BAT IDATZI

L4EE0098

- Pentsatu ondo zer kontatu nahi duzun
- Informazioa modu kronologikoan ordenatu
- Gutxienez, **60 hitz** idatzi

IDATZI BAINO LEHENAGO: pentsatu zertaz idatziko duzun eta zure ideiak antolatu

IDAZTEN ARI ZARENEAN, testuaren itxura, gramatika eta ortografia zaindu

BUKATZEAN testua birpasatu

Ni txikitzen astopotas bat mintzen ez mintzen geldi egoten momentu bat ere ez beti horrikin, saltok, lekuekin igotzen... Baina gehien gogoratzen dutena egon batean faberina bakarra joan ginen eta ni ez nahi nuen purra jan ni txuleta eder bat nahi nuen jan besteak bezela eta orduan plater bat artu nuen eta sukaldere joan mintzen txuleta eskatzen eta gero mire ama kromka handia eman zidan.

14

4E2E201204303



03

14

NARRAZIO BAT IDATZI

L4EE0098

- Pentsatu ondo zer kontatu nahi duzun
- Informazioa modu kronologikoan ordenatu
- Gutxienez, **60 hitz** idatzi

IDATZI BAINO LEHENAGO pentsatu zertaz idatziko duzun eta zure ideiak antolatu

IDAZTEN ARI ZARENEAN, testuaren itxura, gramatika eta ortografia zaindu

BUKATZEAN testua birpasatu

Ni txikitari joan nintzen nire
lenguazarekin Etxebarrira parkera eta
eta ranpa batetik gola nintzen bisikletarekin
orduan txakur bat nire atzetik joan
zen korrika. Ni beldurra neukan orduan
atoda pastilla joan nitzen eta paperontzi
batekin txake egin nitzen. Mina asko egin
nuen eta oinean ezgince bat egin nuen
baina ni niri nuen erreplikatzera, baina
etxera joan nitzen. Ordutik aurrera ez
dut beldurrak txakurrei. Ze zuzto eman
nion nire lenguzu handiari.

60+



ISEI-VE
SABIA SISTEMEN ENKATUA
ETA BERTZETIKO ZAKARRAK
SISTEMEN BERTZETIKO ZAKARRAK
ETA BERTZETIKO ZAKARRAK

EUSKO JAURRIARITZA
HEGALAZIA, LANTZARITZA
ETA ABOKAZIA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
INFORMÁTICA E INVESTIGACIÓN

MAILA AURRERATUA

Maila honetan dauden ikasleen idazte maila altua da; oso ongi garatzen dituzte ideiak eta ongi egituratuta ere. Ikasleek badakite errekurso linguistikoak egoki erabiltzen. Hiztegi ezagupenak, ezagupen gramatikalak eta ortografikoen maila ona da.

Datozen adibideetan, bi testuek betetzen dute proposatutako helburua: txikitako gertakizun bat kontatu eta narrazioaren formatura egokitzen dira. Informazioa era koherentez azaltzen da eta horretarako behar diren baliabideak erabiltzen dira (paragrafoak, konektoreak, etab.). Erabilitako erregistroa egokia da. Ez dira inkoherentziarik agertzen eta informazioa aurrera egiten du testuan. Lexiko, gramatika zein ortografiaren erabilera nahiko zuzena da.

4E2E200828903



03

14

NARRAZIO BAT IDATZI

L4EE0098

- Pentsatu ondo zer kontatu nahi duzun
- Informazioa modu kronologikoan ordenatu
- Gutxienez, **60 hitz** idatzi

IDATZI BAINO LEHENAGO pentsatu zertaz idatziko duzun eta zure ideiak antolatu

IDAZTEN ARI ZARENEAN, testuaren itxura, gramatika eta ortografia zaindu

BUKATZEAN testua birpasatu

Txikitam lau urte muela
irristatu egim muem jota aurpe-
giarekin jo muem lurra. Ni negarez
hasi nintzen eta Burutzetara
eraman menduem mire amak eta aitak.
Ham berona bat egim zidatem
zudorra apurtuta muela eta mi
zudorra ikutu muem eta esan
muem zudorra aurpegiam melkala
eta barrez lebertu zirem eta
azkemeam mi ere barrezka
hasi nintzen eta ez nintzen
ezetaz entzatu.

61



ISEI-IVE
IRAKASLE SISTEMAN ENPLAZATU
ETA BERTZULAN ENPLAZATU
BIRBILTZEKO ENPLAZATU
E INVESTIGAZIOAN LAGUNTZA

EUSKO JAURLARITZA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

4E2E201608703



03

14

NARRAZIO BAT IDATZI

L4EE0098

- Pentsatu ondo zer kontatu nahi duzun
- Informazioa modu kronologikoan ordenatu
- Gutxienez, **60 hitz** idatzi



IDATZI BAINO LEHENAGO, pentsatu zertaz idatziko duzun eta zure ideak antolatu



IDAZTEN ARI ZARENEAN, testuaren itxura, gramatika eta ortografia zaindu



BUKATZEAN testua birpasatu

Ni, bi urte nituenean, guraso eta zeha-
osabekin ez nago oso seguru
non, erori egia nintzen.

Ez nuen negar asko egin, hori
esaten didate. Erresidentzira eramaten
ninduten eta hanka hartuta nuela
esan zidaten.

Egunero eskaiola puskatzen nuen
eta nire zeha etortzen zen
eta eskaida konpontzen zidan.

Ikastolara joaten hasi nintzenean,
oso ondo pasatzen nuen eta
eskaiolak ez zidan molestatzen
eta gustora jokatzen nuen.

62



ISEI-VEI
IRAKASLE BAKARRIEN ERABILKETA
ERAKUTZITZEA FASZIKULAZ
GUTUEN BARRIAN

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, UNIVERSITATEA
ETA ENPLEGU BAKARRA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIONES